

## Kultur Astea ospatzen ari dira herriko andaluziarrak

Astlehenean hasi zen Semblante Andaluz elkartearen VIII. Aste Kulturalaren egitarauaren barruan, ostiralean haurrentzat ekitaldiak izango dira, larunbatean kantaldia eta igandeko bazkari herrikoiairen ondoren Andaluziako dantzak eta lehiaketak irabazleei sari banaketa, besteak beste. /4



## Nerbio sistemaren gaixotasunak

Bizi Bide elkarteak astezkenean eskaini zuen hitzaldia Lasarte-Orian

Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea dira nerbio sistema zentralean disfuntzioak sortzen dituzten gaixotasun nagusiak.

Lasarte-Oriako herritarrek hauei buruz gehiago jakin zezaten, Bizi Bide elkarteak hitzaldia eskaini zuen astezkenean Manuel Lekuona kultur etxean.

Elkarteko lehendakaria den Arantza Alcibarrek eta Leila Govillard psikologoak eskaini behar zuten hitzaldia. Baina lehendakariaren ondoeza zela eta, azken hau izan zen herriko hainbat emakumeren aurrean aurkeztu zena.

Govillard-ek fibromialgia gaixotasunaren datu historikoak eskaini zituen hasieran, hala nola, OMSek 1992an gaixotasuna zela onartu zuela.



Emakume ugari bildu ziren hitzaldi aretoan Bizi Bide elkarteak fibromialgiari buruz eskaini behar zuten saioa entzuteko.

Gaixotasunaren sintomak, honen diagnosis eta tratamenduari buruz ere mintzo zen, baita psikologikoki gaixoaren-

gan eta familiarengan izan dezakeen eraginari buruz ere.

Era berean, Bizi Bide elkarteak eskaintzen duen

zerbitzua azaldu zuen eta azkenik, bertan zeuden emakumeek galderak egiteko aukera izan zuten. •

## Afrikaren erronkak

Prosalus Gobernu Kanpoko Erakundeak ekarritako *Afrika eta Milurtekoaren garapen helburuak* erakusketak asteartean ireki zituen atea Manuel Lekuona kultur etxean.

Honetan, Afrikako hainbat herrialdeetan egindako argazkietaz baliatuz, kontinente honek Milurtekoaren garapen helburuak betetzeko dituen erronkak azaltzen ditu erakundeak.

Afrikako errealitatea eta honek eman beharreko pausuak ezagutzeko aukera dago Lasarte-Orian, urriaren 28ra arte. •



Prosalus erakundeak jarri duen erakusketako argazki bakoitzak Afrikako kontinenteak duen erronka bat aurkezten du.

**POLITIKA/3**

**EAJ alderdiaren jarrera 2010eko aurrekontuaren aurrean**

**AISIA/4**

**Euskal jantzien ikastaroa antolatu du berriro ere Ttakunek**

**KIROLA/6**

**Euskadi Saria eman diete Maialen Chourraut eta Jon Tecedorri**

# SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



**Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471  
Lasarte-Oria  
www.sugate.net**

**Neure kabuz**



**Bada, ez, ez naute izendatu**

Ministro. Ez naute ministro izendatu. Ministro pila izendatu, baina ni ez. Oraingoan ere, kale. Putza. Dio!!... Ezen, ni hor jarrita, ederki egingo nituzke nik egin beharrekoak... Bankuak nazionalizatzea, adibidez.

Txantxetan ari naiz, noski. Ni ministro? Beno, beno, beno... Gainera, kontua ez da ni edo zu edo hura ministro izatea. Politikak aldatu ezean, denbora galtze hutsa da politikarien aldaketetan arreta jartzeara. Politikak interesatzen zaizkit, ez politikariak.

Akatsa personalizazioan dago. Ez bakarrik politikari, gizarte kontuetan, oro har, ohikoa dena. Gizartea gizakiz osatuta dagoenez, gizarteko gertaerak giza gertaera butsak balira bezala aztertzen dira, pertsonen artekoak balira bezala, ez gizarteko indar pila-ketaren ondorio moduan. Nolabait, Kimika eta Fisika nahastea bezalakoa da: gauza guztien osaketan atomoak daudenez, Kimika dagoenez alegia, Fisikak planteatzen dituen galderi aurre egiteko Kimikaren kategoriak erabiltzea galbidearen hasiera baino ez da. Edozein gaztetok ezagutzen ditu ondorioak: Fisikan penko, errieta etxean eta azterketa errepikatu behar. Bada, gizarte kontuetan gauza bera.

Noski, gizarte arazoen personalizazioa ez da kasualitatea. Ezjakintasuna da boterearen arma inportanteenetako bat; beraz, gizartearen mekanismoak nola funtzionatzen duten jakin ezean, nola arario sortu alternatiba eraginkorrik? Penko, beraz. Pentsioak murriztuko dizkigute lasai asko.

**Pablo Barrio**

**Zorion-agurrak**



**Aitor**

Zorionak txapelduun! Dantzatzu eta abestuz nahi ditugu zure urteak ospatu!



**Lander**

Zorionak Lander zure urtebetetzean! Bost muxu handi familiaren partetik.



**Oihane**

Zorionak eta ondo pasa familia eta lagun-txoekin. 5 muxu haundi Eneko, eta gurasoak.



**Haizea**

Zorionak familiaren partetik zure hamaikagarren urteurrenean. Ondo pasa masapasa!



**Mario**

Zorionak zure 6. urtebetetzean. Muxu asko, izeba, Eneko eta Ane-ren partetik



**Nahia**

Zorionak maitea. Ondo pasa zure 6. urtebetetzean. Segi horrela, asko maite zaitugu.



**Silvia**

Zorionak polita eta muxu asko familiaren partetik.



**Leire**

Zorionak eta zortzi muxu handi familiaren partetik.



**Ana**

Zorionak polita! Oso ondo ospatu eta zintzo ibili. Muxuak denek partetik.



**Asier eta Andoni**

Zorionak eta zazpi muxu handi familiaren partetik.



**Uxue**

Zorionak eta hiru muxu handi familiaren partetik. Ondo pasa!



**Dani eta Laura**

Zorionak bikote! Dantzaren grinak jarraitu dezala zuen oinak astintzen. Muxu handi bat!

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Logela alokatzen da Lasarteko erdigunean. 275 euro. Deitu 664 427 082 telefonora 18:00etatik aurrera.

• Etxea errenta eman nahi da Lasarte-Orian, 80 metro karratu ditu eta eguzkitsua da. Harremanetarako: 628 904 130.

• Garage irekia alokatzen dut Green plazan. Harremanetarako zenbakia, 943 492 558.

• Garage handia, bi marra, alokatzen dut Atsobakar auzoan. Harremanetarako, 943 376 115.

**Salerosketak**

• Egoera onean dagoen antzinako josteko makina erosiko nuke. Harremanetarako: 943 365 149.

**Lan-eskaintzak**

• Emakume euskaldun bat behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko, astean zehar arratsalde batean eta larunbata eta igande gauetarako. Harremanetarako: 610 953 258, Pili; 13:00etatik 15:00ak bitartean deitu.

**Oharrak jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

• Ingeleseko irakaslea behar da, bertakoa, 17 urteko gazte bati eskola partikularrak emateko. Harremanetarako: 615 793 964.

• Ile-apaintzailea behar da Lasarte-Oriako ilepaindegi batean. Harremanetarako: 629 482 335.

**Lan-eskariak**

• Laguntza klaseak ematen dira, LH, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, arreta personalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako: 943 376888 / 646 645445 (Maria).

• Anndre euskalduna eskeintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako: 618 097 676.

• Lasarte-Oriako neska gaztea eskeintzen da kurtsuan zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.

• Neska arduratsua eta esperientzia duena eskaintzen da haurrak zein nagusiak zaintzeko. Etxeko garbiketa ere egiteko prest. Harremanetarako: 697 946 546.

• Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntzan, garbiketa edo baserri batean lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 677 593 772.

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Ostirala, 22**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Larunbata, 23**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Igandea, 24**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Astelehena, 25**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Astearte, 26**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Asteazkena, 27**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Osteguna, 28**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**

Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Jaiotzak**

• Nora Miguelez Bien-zobas, urriaren 15ean.

• Nerea Cendoya Casado, urriaren 15ean.



• Lur Morales Salaberria, urriaren 12an.

• Uxue villena Echeberria, urriaren 11ean.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFako Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# 'Udala egoera tamalgarrian dago'

■ EAJk bere jarrera eta iritzia aurkeztu du Lasarte-Oriako egoera ekonomikoa eta 2010eko aurrekontuen aurrean ■ 2011ko aurrekontuak eta Plan ekonomiko-Finantzarioa egitea eskatuko ditu hurrengo Batzarrean

Azken Udalbatzarrak, 2010eko aurrekontuak eztabaidatu zirenekoak eta honen ondorioak, alderdi ezberdinen erantzuna izan du. Asteazkenean, EAJ alderdiak aurrekontuen eta herriko egoera ekonomikoaren aurrean duen jarrera azaldu zuen.

Udala 2008ko aurrekontuen luzapenarekin lanean ari dela gogoratu zuen Estitxu Alkorta alderdiko bozeramaileak. "2009. urtean, PSEE Ezker Batuarekin zegoen Udal gobernuan, eta aurrekontuak onartzeko aukera osoa zuen" gaineratu zuen.

## Balantzea

Gauzak honela, Gobernu taldearen kudeaketa tamalgarria hainbat datu eskainiz azaldu daitekeela uste du alderdiak.

Honela, 2008ko aurrekontuko %59,18a bakarrik aurrera eraman zen eta honetan 3,5 milioi euroko defizita izan zela aipatu zen.

"2009ko gastuen aurrekontu orokorreko %66,92 exekutatzen. Aurrezki garbia, ordea, positibo izatetik negatibora pasa da eta zailtasun larriak ditugu joan den ekitaldian konprometitu ziren gastu batzuei aurre egiteko," jarraitu zuen.

## Egoera

Herriko EAJren aburuz, "egoera tamalgarrian dago, beraz, Udala, aurrekontu gaurkoturik

gabe ezinezkoa baita ondo funtzionatzea."

Alderdiko bozeramaileak, 2010eko aurrekontuen eskaera martxoan aurkeztu zutelako gogoratu zuen, "alkate izendatu berriak, ordea, kalitatezko bozka erabiliz atzera bota zuen eta harrezkero larriagotu besterik ez da egin Udalaren egoera ekonomikoa."

## 2010eko aurrekontuak

Urte bukatzeko hiru hilabete faltan, 2010eko aurrekontua aurkezteak helburu bakarra zuela azpimarratu zuen EAJk, "Udal Batzarrak baimena ematea berak 3,9 milioi euroko kredituak eska ditzan."

"Berak presazkotzat jotzen dituen proiektu jakin batzuk egiteko, ez besterako," gaineratu zuten.

EAJk honen hariara, Gobernu taldeak oposizioko alderdiei aurrekontuak ez onartzearen ondorioz, herrian egin behar diren proiektu batzuk geratzearan erantzukizuna egotzi diela ere gogoratu zuten.

Alderdi jeltzalearen ustez, Udala ez dago azpiegitura eta zerbitzu berrietan sartzeko moduan, izan ere, "datorren urtean nahiko arazo izango ditugu gaur ematen diren zerbitzuak eskaintzeko."

"Gu ez gaude herrian egingo diren proiektuen aurka. Ez gaude Gazteleku-



Estitxu Alkorta EAJko bozeramaileak azaldu zuen alderdiaren jarrera.

ren edo Jaizkibel plazaren eraberritzearen aurka. Egun dagoen egoera ekonomikoa ikusita, orain egitearen aurka gaude. Lan edo proiektu horiek etorkizunean egin daitezkeela uste dugu," gaineratu zuten eta "hitzartuta dauden lanak egin behar dira," azpimarratu zuten.

Honela, aurrekontua aurrera atera balitz, Udala gehiago zorpetuko litzakeela adierazi zuen alderdi jeltzaleak, "urte amaierarako 11,6 milioi euroko zorretara iritsita."

## Negoziaketak

PSEEk egin duen aurrekontuen negoziaketari ere heldu zioten EAJkoek.

"Eskuzabal jokatu," alkateari negoziazioa martxan jartzeko aukera eman eta alkateak uko egin zuela jakin arazi zuten.

"Bakar-bakarrik udal ordezkari bat duten taldeekin, EB, LOHP, PP eta Hamaikabat alderdiekin hitz egin du, ea norik ematen zion aurrekontua aurrera ateratzeko behar zuen botoa. Eta argi eta garbi esan

zuen gurekin eta ANVrekin ez zuela negoziaketarik egingo," azaldu zuten.

Udalbatzarrean gertatutako ikusita, alkateak negoziatzeko gaitasun urria erakutsi duela ere azpimarratu zuten, "ez du aldeko iritzia bakarra ere lortzerik izan udal batzarra osatzen dugun gainerako zinegotzien artean."

Era berean, Lasarte-Oriako Udala igarotzen ari den egoera ekonomikoari aurre egiteko orduan, Jesusu Zaballós alkatea "ez dela gai" eta "gaineratu zinegotzi taldeekin adostasun maila batzuetara iristeko" gaitasunik ez duela ere uste du alderdi jeltzaleak.

## Etorkizunera begira

Honetaz gain, datozen urteetan Udala zer egoeran egongo den zehatz mehatz aztertu behar dela azpimarratu dute jeltzaleak, "leporaino zorpetu baino lehen."

Horregatik, EAJk gogorarazi nahi du gobernu talde 2011ko aurrekontu proiektua eta Udalaren aurrezki garbia handitu eta zorra txikitzeko Ekonomi eta Finantza Plangintza bat aurkeztera behartua dagoela urte amaiera baino lehen.

Alderdi jeltzalearen ustez hauek tresna garrantzitsuak dira egoera ekonomikoari aurre egiteko eta hurrengo batzarrean hauen eskaera egingo dio Gobernu taldeari. •

## Osasun jardunaldiak hurrengo astean

Hurrengo astean, astelehentik ostegunera 19:00etatik aurrera, XVIII. Osasun jardunaldiak ospatuko dira Manuel Lekuona Kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Aurreko urteetako arrakasta ikusirik, urtero gai ezberdinak jorratzen saiatzen dira, aurtun teknologia berrienganako adikzioa, alzheimerra, tabakoa eta transplantateak izango dira.

## Adituak

Astelehenean, Enrique Echeburua Psikologia klinikoko katedraduna teknologia Berrien eta sare sozialenganakoa adikzioari buruz jardungo da.

Alzheimerra izango da gai nagusia asteartean. Gaixotasun honetan benetan zer axola duen izango dute hipzide Gurutz Linazasoro Neuro-



Osasun jardunaldietan gai ezberdinak jorratzen dira, iaz esate baterako kolon minbizia.

logoak eta Pablo Martinez Lage Ikertzaileak.

Javier Laparra neumologoa, asteazkenean, tabakoarenganako adikzioa nola gainditi azalduko du.

Eta jardunaldiei amaiera emateko, *Transplanteak: Denon beharra* hitzaldia izan-

go da, Luis Balenciaga ATCORE Euskadiko bihotz eta biriketako transplantatuen elkarteko bokala, Garikoitz Lasa Kardiologiako espezialista eta Miren Telleria hemodinamikako medikuaren eskutik.

Interesatuak bazaudete, hurbildu kultur etxera. •

## GAZTE KONTZERTUAK

### Wha Wha Buga Band kontzertuan

Lasarte-Oriako Udalak eta Xpression kultur elkarteak antolatzen dituzten Gazte kontzertuen barruan, gaur, 20:00etan Donostiako Wha Wha Buga Band entzun ahaliko da Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian.

Neskez osatutako talde honek, 60. hamarkadako pop-aren kutsua du. Abestien tematika originala eta gizarte gaiekin lotutakoa da. Moldaketa landuak aurkeztuko dituzte, izan ere, gitarra, baxua, teklatura, bateria eta saxoa osatzen dute talde hau.

Talde honen grina eta indarra ezagutzeko, gaur kultur etxeko kafetegian eskaintzen duten kontzertua duzue. •

## ANTZERKIA

### Txirulari Magikoaren doinua Lasarte-Orian

Teatro Paraiso taldeak Hamelingo txirulariaren ipuin ezagunaren moldaketa dakar larunbatean, 18:00etan Manuel Lekuona Kultur etxeko aretora, *Txirulari Magikoa*.

Istoria ezagun hau zintzotasunaren garrantziaren gaineko hausnarketa egitera bultzatzen dituen errima, musika eta antzerki joko bat da.

Familia osoak gozatu dezake, antzerkia eta musika bateratzen dituen antzezlan honetaz, baina bereziki 7 eta 11 urte arteko gaztetxoentzat zuzendua dagoen saioa izango da eta hauen parte hartzea ere garrantzitsua izango da istorioan zehar.

Murgildu zaitezte, beraz, larunbatean Hamelingo herrian eta bertan zer gertatzen den jakingo duzue, 3,15 euroren truke. •

# Euskal jantzi tradizionalen ikastaroa

Berriro ere baserriar jantzia zerorrek egiteko aukera ematen duen kurtsoa antolatu du Ttakunek

Euskal jantzi tradizional dotorea, norik ez luke horrelakorik nahi? Ttakun Kultur elkarteari esker berriro ere zure jantzia josteko aukera duzu. Aurreko urteko arrakasta ikusirik, azaroan berriro jantzi tradizionalak egiteko ikastaroa martxan jarriko da. Zortzi saio izango ditu kurtsoak. Hauetan neurriak hartu eta oihalak moztzen ikasteaz gain, josteko makina erabiltzeko aukera eta Ione Artola irakaslearen gomendioak izango dituzu.

**H**erri honetan trebetasuna eta gustu asko duen ikasle potentzial ugari dagoela argi eta garbi geratu zen aurreko urteetan egindako jostungintza ikastaroetan. Euskal jantzi tradizional dotorea edo bainikaz apaindutako mantala edo soinekoak landu ziren. Eta hauetako asko ikusi ditugu Lasarte-Orian baserriarrez jantzeko parada egon denean.

Zuk ere zurea egin nahi duzula? Santo Tomas egunean zuk zeuk egindako jantziarekin kalera irten nahi duzula? Ba ez galdu Ttakun kultur elkarteak azaroan eskaintzen dizun aukera.

Oraintxe duzu euskal jantzi tradizionala egiteko aukera, gainera, zuk zure erara sortzeko, eta zure esku propioekin lantzeko bide paregabea: jostungintza ikastaroa.

## Ikastaro osatua

Ione Artola jostun irakaslearen laguntzari esker zure jantzi tradizionala egiteko aukera izango duzu. Neurriak hartu,

oihalak moztu eta loneren argibideak jarraituz gonaren tolesak nola egin edo azkeneko puntuak nola eman ikasiko dituzu, besteak beste.

Gustuko lana egiteko, lagun berriak ezagutzeko eta gainera, hau guztia euskaraz egiteko aukera eskaintzen duen ikastaro honetan parte hartzeko aukera luzatu nahi dizute Ttakun kultur elkarte-ko arduradunek.

Azaroan zehar, zortzi saio izango dira, astean bi egunetan, astearte eta ostegunetan, 15:00etatik 17:00etara, azaroaren azken asteartean 30ean, izan ezik.

## Trabarik ez

Gogoak bai, baina josteko makinarik ez duzula? Lasai, aurreko ikastaroetan bezala Ttakun Kultur Elkarteak utziko dizu bat.

Erribera kalean dagoen lokalean emango da ikastaroa, lehen udal liburutegia zegoen lekuan eta bertan beharrezko azpiegitura

guztiak aurkituko dituzu, gabonetan eramango duzun jantzia egin ahal izateko.

## Izen ematea

Zure jantzi tradizionala egiteko irrikitan eta gogotsu baldin bazaude eta izena eman nahi baduzu, edo zalantzak argitu nahi badituzu deitu 943 37 14 48 telefono zenbakira.

Bertan, dituzun zalantza guztiak eta ikastaroaren nondik norakoak azalduko dizkizute.

Ikastaroen ordainketa, 25 euro, ez da izena emateko egunean egingo, behin hasitakoan baizik.

Gainera, Ttakuneko bazkidea bazara, %10eko beherapena izango duzu prezioan, 22 euro ordainduko duzu ikastaroa. Ez dago aitzakirik beraz.

Era berean, antolatzaileek gogora arazi nahi dute prezioan ez dela materialik sartzen, hau da, egin nahi den jantziaren ideia eta materiala, oihalak, orratzak, botoiak, etab, bakoitzak eraman behar dituela.

## Harrotasunez

Santo Tomasetan zure jantzi berriarekin herrian zehar harrotasunez ibiltzeko aukera izango duzu, ez galdu eskaintzen dizute aukera hau.

Beti amestu duzun jantzi hori errealitate bihurtu daiteke, gainera zure eskuekin egindakoa izateko bidea eskaintzen zaizu. Ikastaro arrakastatsu honetan parte hartu eta jarri dotore.

Ione Artola irakaslearen eskutik zure desioak egi bihurtu itzazu.

Ez eduki zalantzarik eta sartu jostun mundu honetan. Ez zara damutuko, oraindik gutxiago emaitzak ikusi eta gero. •



Horrelako blusa egin zuten lehengo urteko ikastaroan.



Loidi kaleko tunela itxia dago eta hiru astez ezingo da pasabide hau zeharkatu.

## Pasabideen mozketak

Saneamenduko kolektore interteptore orokorraren lanak direla eta, Loidi kaleko N-1 errepide azpiko pasabidea, hau da, Adurizeko lurrazpiko pasabidea hiru astez trafikoarentzat itxita egongo dela gogorarazi du Udalak.

Era berean, Okendo eremuko berritze lanak direla eta, Hipodromo Etorbidearen eta Ola Kalearen arteko ibai ondoko oinezkoentzako pasabidea itxita dago eta bi hilabetez ezingo da bertatik igaro. •

## Irudimenaren mundura bidaiatuz

Lasarte-Oriako haurren liburutegian irudimenaren munduan murgildu daitezke herriko txiki eta gaztetxoak, bertan dauden libururekin. Baina beste era bat ere badute, *Ipuinaren ordua*.

Asteazkenean, Koruko Zurutzaren txanda izan zen. Honek 6 eta 8 urte arteko talde txo bati hainbat ipuin kontatu eta antzezpen txikia egin zien.

Esate baterako, behatz handiatu bat zuen neskatoaren istorioa ezagutu zuten.

Hurrengo saioa, astelehenean, urriaren 25ean izango da, 18:00etan. Pello Añorgaren eskutik, 4 eta 5 urte bitarteko haurrek istorio ezberdinez gozatzeko aukera izango dute. •



Korukok ipuinak kontatzeaz gain, haurren kontakizunak ere entzun zituen.

# Kultur-asteburua Semblante Andaluz-en

■ Haurrentzat marrazki lehiaketa, pailazoak, txokolata eta txurroak, gaur ■ Semblante Rociero koruak kantatuko du bihar ■ Igandeko bazkarira gonbidatuta daude andaluziarrak

Astelehenean eman zion hasiera Semblante Andaluz elkarteak bere VIII. Aste Kulturalari Ohorezko ardoarekin. Lasarte-Orian bizi diren andaluziarrak bertako produktuak dastatu eta ardoa edateko aukera izan zuten udal ordezkariekin batera. Astean zehar hainbat ekitaldi burutu dira, hala nola, kartetako eta poto txapelketak, patata tortilla lehiaketa eta Mikel Etxarri futbol entrenatzailearen hitzaldia, besteak beste. Gaur, haurrentzako ekitaldiak izango dira, bihar kantaldia eta igandean bazkaria, ondoren Andaluziako dantzak eta sari banaketa, guztia, elkartearen bertan.

Jon ALTUNA

Astelehenean hasi zen VIII. Aste Kulturala Semblante Andaluz elkartearen eta igande arratsaldera arte luzatuko da. Hasiera ona emateko, ohitura den bezala ohorezko ardoa hartu zuten, elkarteko bazkideek udaleko ordezkariekin eta gonbidatuekin batera. Ohorezko ardoaren dastatzean izan ziren besteak beste Jesus Zaballos eta Iñaki Mujika Lasarte-Oriako alkate eta alkateordea eta Antonio Pedraza elkarteko presidentea.

Bestalde, astean zehar beste hainbat ekitaldi burutu dira. Mus txapelketan, Antonio Ruben Rodriguez eta Amelio Martin izan ziren txapeldunak eta Pedro Grande-Eliodoro Lorenzo bikotea txapeldunorde. Hauek, Grande eta Lorenzo, txapeldunak izan ziren tutean, finalean Antonio González eta Leoncio Sánchez-irabazita. Sariak igande iluntzean banatuko dira. ...

Bestalde, atzo osteguna bazkide asko bildu ziren Semblante Andaluz elkartearen. Barruan ziren patata tortilla lehiaketan parte hartu zutenak eta kanpoan patora jaurtiketan aritu zirenak. Bestalde, 19:30etatik aurrera hitzaldia

eman zuen Mikel Etxarri, Lasarte-Oriako entrenatzaile eta Radio Euskadiko kirol adituak, "Futbola Lasarte-Orian" gaiaren inguruan. Ondoren, patata tortillen lehiaketako irabazlea aukeratu zuen epai mahaiak eta bukatzeko patata tortilla eta beste dastatu zituzten bertan elkartu zirenek.

Gaur ostirala haurrak izango dira protagonista Semblante Andaluz elkartearen. Batetik, marrazki lehiaketan parte hartzeko aukera dute elkartean diren haurrek arratsaldeko 18:00etatik aurrera, pailazoan emanaldia izango da 18:30etan eta ondoren txokolata eta txurroak banatuko dira.

Larunbatean arratsaldeko 18:30etan *Semblante Rociero* abesbatzak bere kantuak eskainiko ditu elkartearen bertan burutuko den kantaldian.

Asteari amaiera emateko iganderako bazkari herrikoia prestatu dute elkartearen. Bazkaloan, Andaluziako dantzak eskainiko ditu *Duende flamenco* taldeak arratsaldeko 18:00etatik aurrera, eta arratsaldeko 19:00etan astean zehar burutu diren txapelketen sari banaketa egingo dute. Bukatzeko urtero bezala, Rozioko salbea eta Andaluziako ereserkia abestuko dituzte. •



Jesus Zaballos, Iñaki Mujika eta Antonio Pedraza, Barakaldoko Hijos de Jaen elkarteko lehendakari Manuel Arroyorekin astelehenean.



Tute eta Mus txapelketa jokatu da astearte eta asteazkenean arratsaldez Semblante Andaluz elkartearen.

**Gosariak  
Hamaiketakoak  
Plater konbinatuak  
Ogitartekoak  
Urtebetetzeak**

## ERREKATXO JATETXEA

**KARTA  
eta  
EGUNEKO MENUA**

**NAGUSI BERRIAK  
Ordutegi berria  
Giro berria**

**Oria Etorbidea Ibaiondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557  
Lasarte-Oria**

**WIFI GUNEA**

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 23**

10:00etan, Ostadar - Ordizia (Infantilen Ohorezko Maila) Michelinen.  
 11:30ean, Ostadar - Zarautz (Emakumezkoen Liga) Michelinen.  
 15:30ean, Ostadar - Intxurre (I. Jubenila) Michelinen.  
 17:15ean, Ostadar - Santo Tomas Lizeoa (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.

10:30ean, Antiguoko - Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila) Berio, Donostian.  
 10:30ean, Euskalduna - Ostadar (Infantil Txikiak) Ubitarte, Andoainen.  
 17:15ean, Kostkas M. B. - Ostadar (Erregional Goren) Matigoxotegi, Donostian.  
 18:30ean, Hernani - Texas Lasartearra (I. Erregionala) Zubipe, Hernanin.  
 19:15ean, Orereta Kafea - Ostadar (Partehartze infantilak) Beraun, Errenterian.

**Igandea 24**

10:30ean, Ostadar - Danena (I. Erregionala) Michelinen.

10:45ean, Ostadar - Anaitasuna (Alebinak) Usabal, Tolosan.  
 16:30ean, Aitzgorri Goierri - Ostadar (I. Kadetea) Alustiza, Seguran.  
 16:30ean, Hernani - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-II) Zubipe, Hernanin.

**ARETO-FUTBOLA**

**Ostirala 22**

**HERRIKO TXAPELKETA**  
 Kirol guneko kantuan  
 20:30ean, Ilargi - IOB H.K.

**Larunbata 23**

16:40ean, Yone Boutique - ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Hernaniko kiroldegia, Hernanin.  
 19:45ean, M. Petronor - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Txikito frontoia, Gallartan.

**HERRIKO TXAPELKETA**

Kirol guneko kantuan  
 09:15ean, Katakras - Naiban  
 10:15ean, Epel - Kalaberri Z  
 11:15ean, Ainhua - Morrison's  
 12:15ean, Buenetxea - S. Andaluz  
 13:15ean, Lekuona Mena - ISU Leih.  
 15:00etan, Ayete - Oria kristaldegia  
 16:00etan, Izarra - Viña del Mar

**Igandea 24**

**HERRIKO TXAPELKETA**  
 Kirol guneko kantuan  
 10:00etan, Indaux - Obelix  
 11:00etan, Izkiña - Illun

**PILOTA**

**Ostirala 22**

19:00etan, Zazpi Itturri - Intza (Eskuz binaka I. Kadetea) Amezketan.  
 20:00etan, Mundarro - Intza (Eskuz binaka III. Kadetea) Astigarragan.  
 21:45ean, Lagunak I - Intza (Eskuz binaka I. Seniorra) Elgoibarko ikastola, Elgoibarren.

**Larunbata 23**

16:00etan, Intza I - Gazteleku 4 (Gipuzkoako txapelketa, Eskuz bana-ka infantila) Michelinen.  
 16:00etan, Intza 2 - Gazteleku 3 (Gipuzkoako txapelketa, Eskuz bana-ka infantila) Michelinen.  
 16:00etan, Intza - Lagunak (Eskuz binaka II. Kadetea) Michelinen.

16:00etan, Antigua - Intza (Eskuz binaka III. Seniorra) Ibaeta, Donostian.


**Igandea 24**

10:30ean, Zioza 6 - Intza (Gipuzkoako txapelketa, Eskuz bana-ka alebina) Zizurkilen

**TXIRRINDULARITZA**

**Igandea 24**

08:30ean, Ostadarreko txirrindulari taldeak Bedaioa, Tolosara egingo du irteera.



Besteak beste, Maialen Chourraut eta Jon Tecedor herriko kirolari olimpikoei eman die 2010.-eko Euskadi Saria Eusko Jaurlaritzak.

# Maialen Chourraut eta Jon Tecedor sarituak

Eusko Jaurlaritzak Kiroleko Euskadi Saria Olinpiar Jokoetan egon diren euskaldunei eman die saria

Eusko Jaurlaritzak aurten Kiroleko Euskadi saria Joko Olinpikoetan parte hartu duten kirolari euskaldunei ematea erabaki du.

Asteazkenean, Getxoko Fadura Hobekuntza teknikoko Zentroan banatu ziren sariak.

Kirolarien izenean, Richar Oribe igerilariak, joko olimpi-koetan behin baino gehiagotan parte hartu duen Maider Telleriak, 1960. an olimpiko izan zen Juan Carlos Migoyak eta Iker Fernandez neguko joko olimpikoetan aritu den eskiztaileak jaso zuten saria Patxi Lopez lehendakariaren eskutik.

Lehendakariaren gain, hainbat politikoa, Blanca Urgell kulturako sailburua edo gonbidatua izan zen Jaime Lissavetzky Kirol arloko Estatuko idazkaria egon ziren bertan.

Era honetara, 1900 urtetik hona udako eta neguko Joko Olinpikoetan, zein 60. hamarkadatik egiten dituen Joko parali-mpikoetan egon diren 252 kirolari izan dira sarituak. Horien artean, Jon Tecedor eta Maialen Chourraut lasarteoriatar- rarrak daude, baita Amaia Andres LOKEko atletismoko entrenatzailea ere.

**Tecedor eta Chourraut**

Lasarteoriatarrei dagokionez, Jon Tecedor izan zen olimpiadatan parte hartu duen lehenengo herritarra. 2000ko Olinpiar Jokoetan egon zen Sidneyn eta 105 kilo baino gehiagoko finalean lehiatu zen. Handik bueltan lehen mailako lehiak utzi egin zituen. 2008ko ekainaren 14an moto istripu batean zendu zen, oraindik maila onean ari zenean.

Maialen Chourraut palis- tak, berriz, Pekineko Joko Olinpikoetan parte hartu zuen 2008an, slalomeko proban. Ezin izan zuen emaitza onik lortu orduan. Horregatik, egun gogor ari da lanean, 2012an Londreseko joko olim- pikoetarako sailkapena lortu eta bertan arantza ateratzeko.

**Saria**

Gauzak honela, lehen aldia da Eusko Jaurlaritzak ematen duen sari goren hau kirolari talde anitz bati ematen diona.

Orain artean, talde edo kirolari bakarra izendatzen zuen Eusko Jaurlaritzak sari- duna izateko eta honetaz gain, kategoria ezberdinak zeuden sariaren barruan, kirolariak, entrenatzaileak, babes- leak... Beraz, aurten guztiz aldatu dituzte irizpideak. •

## Infantil mailako judoek brontzezko bi domina ekarri dituzte Sauvagnonetik

Lehenengo igandean, LOKEko infantil mailako judoek Frant- zian, Sauvagnoneko nazioar- teko txapelketan bi brontzeko domina lortu zituzten.

Gorka Aristegiren taldeko hiru kirolarik parte hartu zuten bertan eta Oscar Garrido eta Fermin Balda izan ziren hirugarren postua esku- ratu zuten bi herritarrik. Fran- tziako, zein Estatuko hainbat borrokalari aurre egin behar izan zieten eta lan ona egin zuten LOKEko gaztetxoak.

Orain, hilabete amaierako Avilesko Hiria sarian parte hartzeko prestatzen ari dira. •



Aristegiren mutilak lan ona egiten ari dira. Oraingoan gaztetxoek lortu dituzte dominak.

Kiroletako oharrak

**Lasarte-Oria Bai! Krosa**

Lasarte-Oria Bai! kroseko helduen lasterketan izena emateko aukera ugari daude. Geltoki kaleko 25. zenbakian Ostadar Kirol Fundazioak duen egoitzan asteleheneetik ostiralera (17:00etatik 20:00etara) eta larunbatetan (11:00etatik 13:00etara) egin daitezke; [www.ostadarkf.org](http://www.ostadarkf.org) web orrialdean; 943 360433 telefono zenbakian; lasterketa egunean Mixxelingo frontoian (9:00etatik 10:00etara) eta kirol denda hauetan: Decathlon (Donostia), Shanti Kirolak (Tolosa), Aralar Kirolak (Tolosa), Apalategi (Donostia eta Zumarraga), Robers (Donostia), Easo Sport (Donostia), Laister Kirolak (Donostia), NereSport (Zarautz) eta Leire Sport (Irun).

Izen-emateak 10 euro balio du -Ostadarreko bazkideentzat, 6 euro-, eta azke- neko egunerako uzten dutenek, 15 euro ordaindu beharko dituzte. Era berean, korrikalariarik lasterketa amaitzean itzuliko zaizkien 5 euroko fidantza ere ordaindu beharko dute, aurten ere denborak txiparekin neurtuko baituzte.

Haurren lasterketari dagokionez, izen-ematea Ostadar Kirol Fundazioaren egoitzan egin behar dute eta bakoitzak 4 euro ordaindu behar ditu.

Egunero

**Erakusketa**

HEGOALDERA BEGIRA, Irati Ber-gararen argazki erakusketa. Irati *Aprendeñ Euskadiko* kidea da. Jalgin, egun osoan.

**Erakusketa**

PROSALUS GK Eren erakusketa ikusgai urriaren 29ra bitartean. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Ostirala, 22

**Kontzertua**

WHA WHA BUGA BAND taldea Xpression eta Udalaren hitzarmenaren baitan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Larunbata, 23

**Berto-saioa**

XI-LA-BA BERTSULARI XAPELKETAKO bigarren finalerdia jokatu da. Bertan Sustrai Colina, Miren Artetxe, Mixel Aire, "Xalbador II", Ximun Cazaubon, Patxi Iriart eta Joanes Etxebarria bertolariek hartuko dute parte. Gabadin, 17:00etan, EUSKARAZ.

Igandea, 24

**Zinea**

MARMADUKE haurrentzako filma. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ



Hamelingo txirulariaren ipuina

TXIRULARI MAJIKOA haurrentzako antzerkia eskainiko du Teatro Paraiso antzerki taldeak. Familia osoak gozatu dezake, antzerkia eta musika bateratzen dituen antzezlan honetaz, baina bereziki 7 eta 11 urte arteko gaztetxoentzat zuzendua dagoen saioa izango da eta hauen parte hartzea ere garrantzitsua izango da istiroan zehar. Sarrerak 3,15 euro balio du.

BIHAR, LARUNBATA  
18:00ETAN KULTURETXEAN  
EUSKARAZ

Astelehena, 25

**Ipuin-kontalaria**

IPUINAREN ORDUA Pello Añorgaren eskutik 4 eta 5 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu behar dira eta haurrek bakarrik egongo dira. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera. EUSKARAZ.

**Hitzaldia**

TEKNOLOGIA BERRIEN ETA SARE SOZIALENGANAKO ADIZKIOARI buruz arituko da Enrique Echeburua, psikologia klinikoko katedratikoa, XVIII. Osasun Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Asteartea, 26

**Hitzaldia**

ALZHEIMER GAIXOTASUNA: BENETAN ZERK AXOLA DUENARI buruz arituko dira Gurutz Linazasoro neurologoa eta Pablo Martinez ikertzailea XVIII. Osasun Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Asteazkena, 27

**Hitzaldia**

NOLA GAINDITU TABAKOAREN-NAKO ADIZKIOARI buruz arituko da Javier Laparra neumologo XVIII. Osasun Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

**Kontzertua**

LIEPITES neskez osaturiko haur abesbatzaren emanaldia. Sarrera doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Osteguna, 28

**Hitzaldia**

TRANSPLANTEAK: DENON BEHAR BAT izeneko hitzaldia emango dute Luis Balenciaga ATCO-REko bokala, Garikoitz Lasa kardiologiako espezialista eta Miren Telleria hemodinamika-ko mediku espezialista XVIII. Osasun Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:00etan.

**Zinea**

PRECIOUS filma ikusgai Oken-do Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ.

Ostirala, 29

**Antzerkia**

MORTIMER antzezlan izango da ikusgai. Klown formatuko lan batekin dator oraingoan Kukubiltxo antzerki taldea. Jalgin, 23:00etan, EUSKARAZ.

Semblante Andaluz Elkartearen VIII. Aste Kulturala

Ostirala, 22

18:00etan, HAURRENTZAKO MARRAZKI lehiaketa  
18:30ean, PAILAZOAK eta txokolate jana

Larunbata, 23

18:30ean, SEMBLANTE ROCIERO abesbatzaren saioa

Igandea, 24

14:30ean, HERRI BAZKARIA  
18:00etan, DUENDE FLAMENCO taldearen dantza-saioa  
19:00etan, SARI BANAKETA eta amaitzeko salbe rozieroa eta Andaluziako ereserkia abestuko dituzte.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

**Odola ateratzeak**

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egin- go dituzte Osasun Zentroan datorren astelehenean, hilaren 25ean, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

**Oztabide elkarteko loteria**

Oztabide auzo-elkartek Arranbide-Oztaraneko auzotarrei jakin arazten die eguber- ritako loteria salgai dagoela. 19108 zenbakia da eta 3 eurotako (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteria partaidetzak dira hartu daitezkeenak. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta COVIRAN supermerkatuan (Oztaran enparantzan)

erosi ahal izango dituzte.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administraritza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukala elkarteak.

**Diru-laguntzen eskaerak**

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetak, Enplegu-ko eta Kooperazioko Departamentuak gizarte-ongi- zatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die gaur irekiko dela sail- laguntzen eskaerak aurkezte-ko epea.

Horretarako eskariak Uda- letxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, 9:00eta- tik 13:30era bitartean, esku- tako agiriekien batera, hau da,

memoria, gastuen justifi- kazioa eta jardueren proposa- mena.

Hori guztia aurkezteko epea urriaren 24era egongo da irekia.

**1962. urtean jaiotako en- afaria**

1962. urtean jaiotako lasar- tearentzat afari bat antolatu- dugu azaroaren 13rako, Dana-Ona jatetxean. Interesa- tuek 40 euroko diru sarrera egin behar dute, azaroaren 5erako, honako kontu korron- te zenbakian, 3035 0036 17 0361127028. Argibide gehia- gorako, deitu: 646 274 376 (Bea) /659 950363 (Rexu). Anima zaitetz!

**Galdutako gauzak**

Udaltzainen bulegoan gauza

hauek daude jasota, diru- zorroa, urrezko katea, zila- rrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketare- kin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pultsera eta kami- seta beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrak, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Intza-ko pilotari gaztetxoak aktore

■ Emily Lobsenz New Yorkeko zine zuzendaria dokumentala filmatzen ari da Euskal Herrian  
 ■ "Ipuina Kontatu-The Basque Way" filmaren trailerrean Asier Arteaga eta Jon Presa ageri dira

Emily Lobsenz zine zuzendari estatubatuarra Euskal Herriarekin liluratuta dago lehenengo aldiz bisitatu zuenetik. Zinema du ogibide, hainbat filmetan aritu da lanean, eta bere proiektu pertsonalena da "Ipuina Kontatu-The Basque Way" izenekoa. 80 ordu grabatuta ditu Euskal Herrian, besteak beste, arrantza, herri kirolak, artzainak, mahats bilketa, festak eta beste hainbat euskal estampa; irudi horien aukeraketa batekin datorren urterako 90 minutuko dokumentala osatu eta Zinemaldietan aurkezteko asmoa du.

Jon ALTUNA

New York-en bizi da iazko abendutik Connecticut-en sortu zen Emily Lobsenz zine zuzendaria, baina London, Bartzelona, Madril eta Donostian bizi izan zen 2002 eta 2009 artean.

Bartzelonara duela zazpi urte heldu zen, eta, korrikalaria zenez, Ordiziako lagun batek herri honetako lasterketara gonbidatu zuen. Txunditu egin zuen Euskal Herriak, zirrara berezia eragin zioten asteburu horretan hemen ikusitakoak eta kontaktu zizkiotenak. Handik aurrera aukera zuenean Euskal Herria hurbiltzen hasi zen.

Bartzelona eta Madril artean aritu zen film ezberdinetan lanean, eta, hemengo lasterketara etortzen zen. Baina hori, berak aitortu digunez, aitzakia besterik ez zen. Berak Euskal Herria etorri nahi zuen, hemengo lagunak kontaktzen zizkieten aitzinako kontu eta istorioak ezagutzeko: "Lagunek modu informalean kontaktu zizkidaten ipuin horiek oso interesgarriak iruditzen zitzaizkidan, eta horri Euskal Herriko irudi hain eder, berezi eta ikusgarriak gehituz gero,... hortik abiatu zen filma egiteko proiektua".

## Zazpi urteko lana

la zazpi urte daramatza euskaldunekin hartuemanetan, Euskal Herriko historia eta ohi-turak ikertzen eta ezagutzen, eta bestalde, han eta hemen, finantzaketa aztertzen, filma e giteko sosen bila, alegia.

Euskal ipuin eta kontakizunen bidez euskal kulturaren historia jasoko duen ordu eta erdiko dokumentala ari da prestatzen. Bere ustez, hemen, lehenaren eta orainaren artean kontraesan handia dago, bate-tik aitzinako ohi-turak garbi gorde nahi dira, baina aldi berean mundu osoko kultura modernoak eragin handia du gaur egun.

Duela bi urte hasi zen Lobsenz Euskal Herriko hainbat paraje eta ohitura grabatzen; hasieran bera bakarrik, eta geroago ekipo txiki batekin, Marcus Lehmann kamerariaren eta soinu teknikari baten laguntzarekin, eta 2010eko abenduan bukatzeko asmoa du. Gaur egungo irudiak jaso ditu, euskaldunok nola bizi garen erakusten dutenak, baina horrekin irauin duten ohitura eta kultur espresio aberats eta kanpotarrarentzat harrigarriak kontaktu nahi ditu.

## Pilotariak grabatzen

Urriari Lasarte-Oriara etorri zen taldea Michelingo kanpoko frontoian Jon Presa, Aritz Solano, Eneko Sarasola eta Yagoba Mendizabal pilotari gaztetxoak grabatzeko, baina Michelin-en graffiti gehitxo zegoela iruditu zitzaion Lobsenz zuzendariari eta Usurbilgo pilotalekura joan ziren grabatzera.

Han ibili ziren lau pilotariak, batera eta bestera: aktore lana ere egin behar izan zuten, besteak beste, kalean elkartu eta frontoira joaten edota pilotak atera eta berotzen grabatu baitzituen. Gero, noski, lauen arteko partidua filmatu zuen eta Jesus Mari Presa, bonbero, aktore amateur eta pilotari ohiari ere egin zion elkarriketatxoa. Usurbilgo plaza toki oso egokia zela, irudi ikusgarriak grabatu zituztela eta pozik zen Emily Lobsenz.

Jesus Mari Presa, 2007ko Bilboko Aste Nagusian ezagutu zuen Emilyly: pilotaz hitz egiten hastean, Presa pilotaria izan zela, etxean pilotak egiten dituela eta pilotari gaztetxoak entrenatzen ari zela jakin eta berarekin hartuemanetan jarri



Emily Lobsenz, Intzako pilotariei aginduak ematen Usurbilgo frontoian, grabaketa hasi aurretik.

zen grabaketa batzuk egiteko. Duela bi urte, Jesus Mari Presaren etxean izan zen Lobsenz aita semeak pilotak nola egiten zituzten grabatzen eta Michelin-en ere bai, herriko pilotari gaztetxoaren entrenamenduan.

## Interneten ikusgai

Jadanik 80 ordu grabatuta ditu Lobsenz-ek, eta irudi ikusgarrienen bilduma luze bi eta egindako frogua labur batzuek interneten ikusi daitezke. [vimeo.com/Daggewoodfilms](http://vimeo.com/Daggewoodfilms)-en barruan 12 bideo dauzka Emily Lobsenz-ek, tartean bi laburpen luzeak, 16 eta 13 minutukoak, promoziorako hiru minutuko trailer bi, baten azpititulua gaztele-raz eta bestearenak ingelesez, (hau Asier Arteaga lasarteoriatarraren irudi batzuekin hasten da) eta beste zenbait laburpen edo frogua ere bai, besteak beste, ia lau minutuko bat itsasoaren eta sukaldaritzaren harremanari buruz, euskal arraunlari, arrantzale eta sukaldarien irudiekin; eta ia 3 minutuko "spirit of ipuina", herri kirolei buruzkoa, Michelingo frontoiko eta Presa aita semeen irudiak jasotzen dituena.

Jesus Mari Presa, eta bere seme Jon pilotak josten agertzen dira: aita semeari pilotak nola egiten diren erakusten dion bitartean, berari pilotak egiten bere aita erakutsi ziola kontaktzen du.

Asier Arteaga herriko pilotari gazteak Michelin-en egindako sate bat ageri da laburpen hauetako batzuen hasieran. Irudi hau berezia dela dio Emilyly. Izan ere, Estatu Batuetan grabaketa erakutsi zutenean denak txundituta gelditu zirela esan zigun: "Denek zioten eszena oso polita zela".

## Proiektu zabalaren hasiera

Dokumentala amaitu eta gero zinemaldietan aurkeztuko du Emilyly gero zinematan ikusteko aukera izan dadin: "Proiektu zabal eta handiago baten hasiera besterik ez da izango hau. Jakin badakit grabatuta ditudan irudi guztiak ezingo direla dokumentalean sartu, 80 ordu inguru jasota ditut eta jada". Ez da dudarik lan handia duela hori guztia laburtzen.

2009ko abendutik New Yorken bizi da Lobsenz, baina aurretik hiru urtez Donostian bizi izan zen. Oraingoan lau asterako etorri da Euskal Herri-

ra. Hamabost egunetan grabaketa egin ditu han eta hemen, Marcus Lehmann kameralaria-ekin batera.

## Korrikalari eta musikaria

2002an Arte Eder eta Literatur-ta ikasketak amaitu zituen AEBtako Amherst eskolan, eta garai hartan idatzi eta zuzendu zituen bi filmek sariak jaso zituzten. Londongo Courtauld eskolan doktoratu zen 2003an eta ordutik Europako eta AEBko zine eta telebista independenteentzat lana egin du kamerari eta arte zuzendari moduan, film luze zein bideo klip-etan. European egon den urtetan, frantsesa, gazte-lera eta euskara ikasi ditu Emilyly. Distantzia luzeko korrikalari, triatleta eta biolo-lontxelojolea ere bada.

2006an sortu zuen Dagge-wood films Brooklyn-en, New Yorken, eta bere anaia txikia Dagge-woods Produksioak Donostian. Fikziozko pelikula eta dokumentalak ekoizten dituzte: azken lana, giza esku-bideen gaia jorratzen duen eta Nikaraguan grabatu zuen dokumentala, kalean bizi diren haurrei buruzkoa eta orain "Ipuina Kontatu" (Telling Stories) The Basque Way-en buru belarri ari dira, batetik irudiak grabatzen eta bestetik finantzatzeko laguntzak bilatzen.

Internet bidez posible da pelikula egiteko diru laguntza ematea, [dagfilm.com/ipuina](http://dagfilm.com/ipuina) helbidean. •

*Gaur egungo irudiek euskaldunak nola bizi garen isladatzen dute, baina horrekin irauin duten ohitura eta kultur espresio aberats eta kanpotarrarentzat harrigarriak kontaktu nahi ditu*